

Maiatzak 21 ZAWP (Zorrotzaurre Art Work in Progress) Habanara doa Tecnalia Research & Innovation Fundazioarekin batera, CREhAbana (Hiri sortzailea Gizarte eta Hiri berrikuntza eredu bezala Habana Zaharraren eremuan) proiektuaren esparruan Hirigune historikoen kudeaketa eta erabilerari buruz urtero burutzen den topaketan parte hartzeko.

Proiektuaren helburua, Habanako alde zaharraren hiri eredu eraldatzea da giza eraldaketa jasangarri eta azkunde ekonomiko bezala, baita tokiko garapenaren prozesu endogenoak indartzea. Ekarpen hau tokiko garapen sozioekonomikoaren eta hiri birmoldaketaren bidez burutuko da, Habanako Hirigune Historikoa hiri sortzaile laborategi bezala garatzeko.

CREhAbanaren garapenean zehar, truke teknikoak burutuko dira: Tecnaliako teknikoen joan-etorriak nazioarteko izen adituekin batera, Habanako erreferente diren ikerketen kudeaketa eta bultzada aurrera eramateko arduradunak, baita Euskal Herriko eta Espainiako beste leku batzuetako OHCHko teknikariak bezala.

Hemen barnean kokatzen da ZAWP taldearen bizita, hiri-garapen eredu arrakastatu bezala, nazioarteko sare ezberdinen partaide delarik. Hondatutako guneak sormen espazio bihurtzeko hiri eraldaketan oinarriturik dagoen proiektua. Era honetan bi kokapen hauen ingurua ezagutu nahi da, Sormen Fabriken funtzionamendu, diseinu eta kudeaketa esperientziak, kontuan izanik harreman publiko-pribatuak eta ekintza berrien interes eta beharrak, hiriak biziberritzeko prozesuetan sormen ekonomia kontzeptuak esarritz.

Proiektua eta honen lotura proiektuaren garapenaren urteetan zehar luzatuko da fase ezberdinetan. Adibidez; 2016an, Habanan Sormen Fabrika izango den etengabeko ideia gintza, kudeaketa eta ebaluazioan kubako kudeaketa taldearen trebakuntza lantzeko bideratutako workshop/tailer baten garapena burutuko da. Sormen Fabriken edo ekimen mintegien funtzionamendua eta kudeaketa ezartzeko plangintza prozesuen ikuspegia izateko.